



EBAZPENA, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, 2023-2024 ikasturteko lehenengo epeko prestakuntza-jardueren behin betiko zerrendak jakinarazten dituena.

Hezkuntza sailburuak 2023ko apirilaren 27an (maiatzak 11ko EHAA) emandako Aginduaren bidez, Prest Gara 2023-2024 Planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleek prestakuntza- eta hobekuntza-jardueretan parte hartzeko baldintzak ezarri dira.

2023ko ekainaren 7ko Ebazpenaren bidez Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak prestakuntza-jardueren behin-behineko zerrendak argitaratu zituen, eskaera bakoitzaren egoera azalduz (onartua, erreserban edo baztertua), eta alegazioak aurkezteko edo parte hartzeari uko egiteko hamar eguneko epea ireki zuen.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta eta Hezkuntza sailburuaren 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Prestakuntza-jardueren behin betiko zerrendak argitaratzea, eskaera bakoitzaren egoera azalduz: onartua, erreserban edo baztertua, azken kasu honetan, zergatia argituz. (I. Eranskina).

Bigarrena: Plaza libreak dituzten ikastaroen behin-betiko zerrenda jakinaraztea (II. Eranskina). Ikastaro horietan parte hartu nahi dutenek, aurkeztu ahal izango diote eskaera Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzari.

Hirugarrena: Aurreikusitako plazen %30 bete gabe geratu diren ikastaroak bertan behera uztea (III. Eranskina).

Laugarrena.- Erabaki honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari, argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean

RESOLUCIÓN de la Directora de Aprendizaje e Innovación Educativa, por la que se hacen públicas las listas definitivas de las actividades de formación de profesorado correspondientes al primer plazo del curso 2023-2024.

Mediante la Orden de 27 de abril de 2023 (BOPV de 11 de mayo) del Consejero de Educación se establecen las condiciones para la participación del profesorado no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las actividades de formación y perfeccionamiento dentro del Plan Prest_Gara 2023-24.

Mediante Resolución de 7 de junio de 2023, la Directora de Aprendizaje e Innovación Educativa publicó las listas provisionales de cada actividad formativa, indicando la situación de cada solicitud (admitida, en reserva o excluida), y dio un plazo de diez días para presentar alegaciones o desistir de la solicitud.

Finalizado el plazo de alegaciones y en aplicación del artículo 7 de la citada Orden de 27 de abril de 2023, del Consejero de Educación,

RESUELVO:

Primero.- Publicar las listas definitivas de cada actividad formativa, indicando la situación de cada solicitud: admitida, en reserva o excluida, señalando el motivo en este último caso (Anexo I).

Segundo.- Dar a conocer el listado definitivo de cursos con plazas libres (Anexo II). Quienes deseen participar en esos cursos podrán presentar su solicitud a la Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa.

Tercero.- Anular los cursos en los que no se ha cubierto el 30% de las plazas previstas (Anexo III).

Cuarto.- Contra esta Resolución las interesadas podrán interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Educación en el plazo de un mes desde su publicación.

Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma

Amaia Agirre Pinedo